

# Antzinateko eta, oro har, latin bitartekotzako izen berezien euskal ordainaz

IÑIGO RUIZ ARZALLUZ  
(UPV/EHU)

## Abstract

*What is natural —and traditional— in the Basque language is the use of Latin spelling as a starting point —following the same rule as the languages close to its surroundings— for the transcription of proper names, which the author of this essay calls ‘names mediated through Latin’. That is to say, all those names which pertain to the Ancient Greek and Ancient Latin world, most of those belonging to the Middle Ages and many from the Modern Age. In this essay we propose a transcription system which, following the rule mentioned above, respects and preserves the genuine Basque pronunciation of those proper names as well.*

Antzinateko izen bereziek beste edozein jatorritako izen bereziek ez bezalako tratamendua dute gure inguruko hizkuntza guztietan: denetan arrotzak izan arren, etxeokak egin dituzte eta etxekotzat tratatu Mendebaleko hizkuntzek, bestelako izen bereziek jasan ez dituzten aldaketak sofriaraziz. Aldaketa hauek araugaitzak dira hizkuntza guztietan, eta guztietan, jakina, desberdinak. Ezinbestekoa denetik behar bada hain beharrezkoa ez denera abiatuta, badirudi euskal hiztegiaren sail ezkutuenak arautzeko sukarra zabaldu dela gure artean, eta izen hauei ere heldu omen zaie txanda, heltzeko zorian da edo presakaegi heltzeko arriskuan dateke: honen inguruan, euskaran jatorra den izen horiek transkribatzeko tradizio bat defendatu baino ez nuke nahi ondorengo lerroetan.

Hizkuntza batean sortutako —edo han jasotako eta bertatik zabaldutako— izen bereziak beste hizkuntza batera transkribatzen direnean, bi muturren artean dauden irtenbide askoren artean egiten da aukera. Mutur horietako bata izango litzateke izen bereziak bigarren hizkuntzaren erara ematea, izen arruntak izango balira bezala eta hauek pairatzen dituzten aldaketa guztiak jasanda; bestea, jatorrizko hizkuntzan diren direnean uztea, oraingo izen berezi arrotzekin gertatzen den legez. Batera zein

\* Zorretan nago orri hauek irakurri eta hobetzen saiatu diren irakasle eta adiskideekin, batez ere Patxi Altuna, Gidor Bilbao, Joakin Gorrotzategi eta Joseba Andoni Lakarrarekin: bihoakie denei nire esker ona. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerkuntza proiektu baten laguntzari esker egin ahal izan da.

bestera, konponbidea ez da, eskuarki, erabatekoa izaten: izen batzuen jokabidea ez da beste batzuen bezalakoa izaten, eta hauetako askoren historia ulergaitza gertatzen da. Euskarari dagokionez eta ondoko lerroetan azalduko dudana aurreratuz, ez du ematen bere nortasun bereziak arlo honetan ere eraginik eduki beharko lukeenik: izen arrunten grafia finkatzean zilegi ez ezik komenigarri ere bada maileguen etimologiarekin —nolabait esateko— *tabula rasa* egitea eta erabat euskararena den grafia sistema bat onartzea, ez du ematen izen arruntentzako irizpide hori izen bereziekin derrigor erabili behar denik, hain zuzen ere izen bereziak direlako; bestalde, ez litzateke arrazoizkoa izango izen berezi hauek bere jatorrian ziren bezalaxe ematea, historian zehar latina euskaldunentzat hizkuntza arrotza izan balitz bezala edo, gauza bera dena, *Vergilius*, *Cicero* edo *Caesar* [bergilius], [kikero] eta [kaesar] ahoskatzen duen euskaldunik ez dagoelako.

Antzinateko mundutik heldu zaizkigun izen berezi guztiak latinean izan duten formatik jaso dira: bai Antzinateko izen greziarrak, bai mundu hartako beste hizkuntzetatik grekoaren bitartez zabaldurikoak, bai latindar aldaerarik duen Erdi Aroko edo Aro Berriko izen asko. Antzinateko izen greziarrak latinaren bitartekotzaz pasatu dira beti Europako Mendebaleko hizkuntzetara —ez bakarrik latinaren alabak diren hizkuntzetara—, beherago aipatuko diren beste arrazoi askoren artean Mendebala —baita, beraz, Euskal Herria ere— erromatar Inperioaren *pars Occidentis* hartan zegoelako kokatua. Erdi Aroko eta Aro Berriko izenei dagokionez, gauza jakina da gutxienez bi hizkuntza maila zeudela Europa osoan, alde batetik latina eta bestaldetik lekuan lekuko hizkuntza arrunta, eta diglosia honek eragin berezia zeukala hemen eta orain interesatzen zaizkigun izenetan: Europako zenbait hizkuntzatan —esaterako— *Moro* esaten bada *Utopia*-ren egilea izendatzeko, santu hark bere lurraldetik kanpo erabiltzen zuen izena *Morus* zelako da, eta ez beste arrazoirengatik, eta ezjakintasunaren erakusgarri baino ez litzateke izango orain *More* esaten hastea. Honen antzeko zerbait gertatzen da —nahiz eta zail izan auzi honetan arau orokorrik ematea, gorago aitortu den bezala— *Lutero*, *Calvino* edo *Abelardo* bezalako izenekin, eta baita —beste modu batean bada ere— errege-erreginen eta Aita Santuen izenekin: hauen izenak latinean zuten edo izan zuketzen moduan hartzen dira (*Friedrich* > *Fridericus* eta hortik hizkuntza bakoitzean gertatzen den emaitza).<sup>1</sup> Hauek guztiak dira, bada, latin bitartekotzako izenak, eta guztiei aplikatu beharko

(1) Hau guztia kontuan edukitzea izen horien euskal ordainak ematean beharreak ez ezik lagungarria ere izango litzatekeelakoan nago: alde batetik gauzak erraztu egingo litzuzkeelako erabat, dena dela ezinbestekoa den latindar izenen zakuan sartuko liratekeelako oso jatorri desberdinetako izen asko eta asko, eta bestaldetik —eta batez ere— hurbilen ditugun erdaren eragin erazegitik babesten lagunduko ligukeelako pedanterierian erortzeke (esaterako, eta adibide berarekin jarraituz, «Friedrich I.» eta antzekoak esateke alegia). Arreta gutxiegi —ene gustorako— eskaini zaie latin jatorriko eta latin bitartekotzako izen hauei Elhuyar elkarteak argitaraturiko *Munduko pertsona-izenak euskaraz emateko irizpideak eta izendegia* (Donostia d. g. [1992]) liburuan, batez ere kontuan hartzen bada izen hauek direla benetan arazoak sortzen dituztenen ehuneko laurogeita hamarra. Latinari berari izan beharrean oraingo beste zenbait erdarari makurtzen —bide— zaio horrelako izen horien euskal ordain asko (36 *et alibi*); ez da argi ikusten zergatik errespetatu diren latindar alfabetoaren letra batzuk eta ez beste batzuk (16 baina *passim*); ilunak dira, halaber, guzti honekin estu lotuta dagoen arazo zenbaiten gainean azaltzen diren iritziak eta jarrerak (adibidez, ingelesez *ib* letrez ematen bada greko klasikoan  $\chi$  zena, ez omen dakigu latinaren eraginagatik den edo beste arrazoiren batengatik —35 h.—; «hebraitar kulturako izenak grekora egindako Bibliaren itzulpenean hartu zuten formaz zabaldu» omen ziren «nagusiki, geroago hizkuntza bakoitzerako egokitzapenak gertatu badira ere» —40—, etab.); irizpide desberdinak erabiltzen dira erabat parekarriak diren aldaketa fonetikoak onartzerakoan: *Nason* eta *Zizeron* (hau da, *casus obliqui* direlakoetatik) baina *Nepos* eta *Klemens* (nominatibotik: 53), etab.

litzaizkieke, transkribapena egitean, arau berberak, nahiz eta arau hauen orokortasuna ezin den erabatekoa izan. Beraz, eta salbuespenak salbuespen, *Virgilio* edo *Ciceron* transkribatzeko erabiltzen ditugun irizpideen arabera transkribatu beharko ditugu baita *Calvino* edo *Venantzio Fortunato* ere. Auzia, zati handi batean behintzat, kulturaren historiakoa da, eta kontuan hartu behar diren gauzak dira, esaterako, euskara Europako paraje hauetan eta ez beste inon bizi izan dela, kultura klasikoak atzoko eta gaurko idazle eta irakurleengan eduki duen eragina izan dena izan dela, euskaldunek latinarekin eduki dituzten harremanak etengabeak eta hurbilekoak izan direla —grekoarekin ez bezala, Mendebaleko herri guztiak bezalatsu—, etab., etab., etab. Hemendik abiatuta, izan daitezkeen transkripzio sistemen artean euskaran naturale-na dena bilatzen saiatuz, honela labur daiteke ondorengo orrietan aldeztu nahi dudana: greziar eta erromatar izen bereziek —latindar bitartekotzakoek alegia— latinean duten grafia gordeko dute hitz horien euskal ahoskerak besterik derrigortzen ez duen bitartean.

\* \* \*

1. Gauza bat da hitz baten —gure oraingo kasuan, izen berezi baten— eduki fonikoa, eta beste bat hitz horren grafia. Hizkuntza batzuek beste batzuek baino joera nabarmenagoa dute latindar (baita, beraz, greziar) izen bereziak itxuraldatzeko: batzuetan, izan ere, denak edo ia denak aldatzen dira bere eduki fonikoan; beste batzuetan ordea erabilienak bakarrik dira antzaldaketa hauek pairatzen dituztenak. Gure inguruko hizkuntza hauetan guztietan Antzinateko izen bereziek izaten duten aldaketa bakarra eduki fonikoan izaten da: grafia, behar ez den bitartean —eduki fonikoak horrelakorik eskatzen ez duen bitartean alegia—, ez da ikutzen. Har dezagun adibide gisa maiz erabiltzen diren izen batzuen sorta bat. *Virgilius / Vergilius* izena *Virgile*, *Virgilio*, *Virgil* eta *Vergil / Virgil* izango da frantsesez, gazteleraz eta italieraz, ingelesez eta alemanez: eduki fonikoa da batetik bestera aldatu dena baina ez geratu diren soinuen grafia, guztietan *v* eta *g* letrez idazten baita nahiz eta hauen ahoskerak hizkuntza batzuetan eta besteetan desberdinak izan; *Caesar* izena *César*, *César*, *Cesare*, *Caesar* eta *Caesar / Cäsar* da bost hizkuntza horietan, hau da, eduki fonikoa aldatu da atzera, baina ez honen grafia, *c* letra mantendu egin delako —*ae* diptongoa ez, ez delako [ae] ahoskatzen, [e] baizik—; *Horatius* hitzak honako itxura hau agertzen du aipatu bost hizkuntzetan: *Horace*, *Horacio*, *Orazio*, *Horace* eta *Horaz* —italieraren *h* letraren ebatze sistematikoa bada, izan ere, grafia aldaketa—. Esan daiteke, beraz, ez dela —oro har behintzat— eduki fonikoak derrigortzen ez duen aldaketa grafikorik.

2. Greziar eta erromatar izen berezien eduki fonikoaz zail da araurik ematea: izen hauekin euskarak baino harreman hurbil eta luzeagoak izan dituzten hizkuntzetan ere ezin omen da honelakorik, eta bakoitzak bere tradizioari —hiztunen mendeetako borondate askeari alegia— eusten dio. Euskaldunek ere badute berea: har dezagun Leizarraga, Axular, Etxeberri Sarakoa, esaterako, eta ikusiko dugu —honetan dauden bi sail nagusienak baino ez aipatzeko— nominatiboan *-us* ondarkiaz

—bukutzen diren izenak *-o* letraz amaitzen direla euskaraz, eta *-o* / *-onis* dutenak nominatibo / genitiboan, *-on* batekin: *Lazaro* eta *Nazareno* dira Leizarragarentzat; *Livio*, *Theodosio*, *Octavio Augusto*, *Salomon*, *Ciceron* eta abar Axularrentzat (zehatzago izateko, *Liurio*, *Octavio*, etab.); *Silio*, *Boecio*, *Virgilio* edo *Platon* Etxeberrri Sarakoarentzat.<sup>2</sup> Eta aipatutako maisuak baino berriagoak eta, zentzu honetan bederen, nahitaez garbizaleagoak diren maisuentzat ere hori izan da bide naturalena: Koldo Mitxelena zenarentzat *Virgilio*, *Bruto*, *Horazio* izaten ziren beti; Patxi Altunarentzat ere *Virgilio* eta *Horazio*; Bernardo Atxagaren liburu berri batean *Cesar* —bakarra baina adierazgarria— aurkitzen dut. Tradizioaren gainean ari garelarik, ez litzateke zilegi —eta inon baino gutxiago euskal literaturaren kasuan, izan duen orekarik gabeko historia izan duelako— mendeetako usadio eta hedaduraren aurka azken urte hauetako kantitateari ematea lehentasuna: esandako tradizioetik —Antzinateko izen berezien eduki fonikoa aipatutako moduan emateko tradizioetik alegia— aldentzen diren bakarrak dira, gutxi gora behera, Orixe eta honen inguruan edo zuzendaritzapean lan egindakoak —Ibiñagabeitia, Zaitegi, Onaindia, etab.—, hala nola hauen guztien eraginpean egon zen —eta, antza, dagoen— Biblia itzultzaile zenbait Olabidegandik hona. Zail da —hortarako arrazoirik ematen ez den bitartean behintzat— lauhun urteren aldamenean hirurogei jarri, batez ere hirurogei urte honetan igeritzen den tradizioa —istilu hauetan ‘hirurogei urte’ eta ‘tradizioa’ oximoron hutsa ez badira— ez denean, ezta hurrik eman ere, dagoen tradizio bakarra: hor daude, gogora bedi, gorago ekarritako Mitxelena, Altuna edo Atxagaren adibideak.

3. Hau bezalako auzi batean ezin da erabateko sistematizaziorik bilatu: salbuespenak egongo dira —hizkuntza guztietan dauden bezala— eta, gehiago dena, salbuespen horiek dastatzen ere ikasi behar da. Ongi etorria izan bedi *Martitz* bezalako bitxi bat, edo *Alosiak* edota *Artizarra* —erabiltzen dugunerako erabiltzen dugula— eta, zer esanik ez, *Erroma*.<sup>3</sup> Baina, bestalde, ez dute nahitaez forma bera izan behar jatorri berdina baina erabilera maila desberdina dituzten bi izen berezik. Aita-ama alemanek, esaterako, lasai asko ipin diezaiokete bere seme jaio-berriari *Emil* izena, baina inori ez zaio burutik pasako Erromako familia ospetsu haren *nomen*-a *Emil* bezala ematea, *Aemilius* baizik, ezta —edo nekez— haurrari *Aemilius* jartzea; eta gauza bera *Anton* / *Antonius*, *Augustin* / *Augustinus*, *Philipp* / *Philippus*, etab. Ez dut arrazoirik ikusten nik defendatzen dudana transkripzio sistema hau Antzinateko

(2) Euskal tradizioa —mende honen hasiera arte bakarra, eta ordutik hirurogeita hamar edo laurogeiak arte Orixerena dei genezakeenarekin batera— esandakoa dela, bada ere oro har, ez da dudarik. Hala ere, noizpait egin beharko da tradizio horren ikerketa sakon eta zehatza, baina ez du ematen, hemen arduratzen gaituenerako behintzat, uste ez den ezer garrantzikorik azalduko denik. Oraingoz daukagun ikerketa bakarra —Alfonso Irigoienek arlo eta helburu zabalago batean kokatu behar baitira— laster argitaratuko den Gidor Bilbao Tellechearen «Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan» da: artikulua honen helburua Antzinateko izen berezien aldaketa fonetikoak ikertzea ez bada ere benetan esanguratsua da horretarako ere.

(3) Ez dirudi ordea hauen artean sartu behar direnik azken urteotan horren arrakasta handia izan duen Axularren *Aristotele* bezalakoak: izan ere, *Aristotele*, gaurko eta atzoko euskaldun gehienek ohituraren aurka joateaz gain, salbuespena izango litzateke euskararen transkribapen sisteman bertan baina baita munduko hizkuntza guztietan ere, frantsesa kenduta noski, Axularrentzat berarentzat ere salbuespena zen bezalaxe, *Demastenes*, *Herodes*, *Antistenes* edo *Hercules* idazten baitzuen; are gutxiago baita Axularrena ere den *Oratio* bitxi eta ulergaitza (jatorrizko edizioak 38 eta 87 orrialdeetan = 24 eta 59 ataletan Villasanteren edizioan).

mundukoak ez diren arloetara eramateko: beude lasai gure Auxtin, Anbortsi, Kai, Kauldi, Dunixi, Ikini, baita Benantzio, Kornelio edo Birgilio: baina, Antzinateari buruz ari garenean, izan daitezela Augustin (edo Agustin) Hipponakoa, Ambrosio Milanekoa, Julio Cesar diktadorea, Claudio enperadorea edo Virgilio Maron Mantuarra.<sup>4</sup>

4. Orain artekoa izen berezien eduki fonikoaren gainean izan da gehienbat: beharbada arazo honen alderdi zailena baina, paradoxa izan arren, ezadostasun gutxien lortu duena, oker ez banago: izan ere, azken urteotan erabat zabaldu dira aipatutako tradizioko aldaketa fonetikoak eta ia erabat baztertu, berriz, Orixe eta bere jarraitzaileen sistema. Txanponaren beste aldea grafiarena da. Gorago esan den bezala, gure inguruko hizkuntzek ez dute, honetan eta oro har, aldaketa aipagarririk sartzen. Alde honetatik, beraz, eta eduki fonikoaren mailan gertatzen zenaren kontra, Antzinateko izen bereziak gaurko izen berezi arrotzak bezala portatzen dira: *Schlegel*, *Rousseau* edo *Boccaccio* idazten dugun bezala *Cäsar*, *Vergil* eta *Cicero* idazten da, adibidez, alemanez, grafian eduki fonikoak derrigortzen ez duen aldaketarik egiteke alegia. Ez da ikusten, hortaz, *Barron*, *Zizeron* edo *Zesar* bezalako euskal transkribapenen beharra. (Bai, noski, *Horazio*, *Curzio* / *Curtzio* eta *Properzio* / *Properzio* bezalakoak: beti bezala ahoskerari makurtu behar zaiolako grafia, eta gainera zenbait erdarak hemen duen *c* ez delako latinetikakoa, hain zuzen ere erdara hauetan izaten den ahoskera errespetatzeko sortua baizik). Euskararen kasura mugatzeko, latin jatorriko izenekin gerta daitekeen arazo larriena euskarak bere usadio arruntean erabiltzen ez dituen letrekin izan daiteke, hots *c*, *qu* eta *v*-rekin.<sup>5</sup> Zail da aurkitzen, gure inguru naturaleko hizkuntzetan, letra hauek ez dituen hizkuntzarik —hain zuzen ere gure inguruan daudelako, hau da, latindar alfabetoarekin eta latindar kulturapean jaio direlako, haren alabak ez direnean ere—, baina badirudi gauzak diren bezala baldin badira ez dela hizkuntza horiek gehienek *c*, *qu* eta *v* dituztelako, jatorrizko izenen grafia mantendu nahi izan dutelako baizik. Gaur egungo alemanak, adibidez, ez du oro har *c* erabiltzen, ezta latinetik edo latin jatorriko hizkuntzetatik hartzen dituen maileguetan: ikus, esaterako, *Kadaver*, *kalkulieren*, *Kanon*, *Kolleg*, *Konkurs*, *Kopie*, *Kultur*, *Kustos*, *Kuvert*, eta beste alde batetik, *Zensor*, *Zentrum*,

(4) Honen pareko zerbait da baita Antzinateko toponimoekin gertatzen dena edo gerta daitekeena ere: tratamendu desberdina eskatzen dute, testu beraren barnean ere, *Aegyptus*, *Rhenus* edo *Hiberus* bezalako hitzek alde batetik, eta *Illyricum*, *Tusculum* edo *Dulichium* bezalakoek beste alde batetik. Bestela esanda, oraingo toponimoek, euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan, antroponimoek erakusten ez duten zailtasun zenbait badakarkigute, Antzinateko toponimoek horiek eta beste batzuk ematen dizkigute. Lurralde-izenekin, hala nola —baldin bereziki ezagunak badira— ibai- eta mendi-izenekin, bidezkoena izen horiek orain duten forman ematea litzateke, baina leku, mendi edo ibai hain ezagunak ez direnean, edo oraingo ordain segururik ez dutenean, latinez diren direnean uztea izango litzateke zuzenena, ene iritzian. Beraz, goragoko *Aegyptus*, *Rhenus* eta *Hiberus*, Egipto, Rhin eta Ebro —horrela idatzi behar baldin badira euskaraz— izan daitezke, baina *Illyricum*, *Tusculum* edo *Dulichium* dauden daudenean geldituko lirateke. (Kontu hauetan beti gertatzen den bezala, hemen ere salbuespenak izan daitezke, eta eurrez izan ere: esaterako, inoiz Pomponio Mela euskarara itzuliko balitz, pentsa daiteke irakurleren batek esker lezakeela toponimo guztiak latinez diren bezalaxe lagako balira). Hortaz, ez dago kontraesanik —oro har behintzat— nik izen berezien sail honetarako defendatzen dudanaren eta Sarasola jaunak arlo zabalago baterako («Exortoponimoen euskal formaz», *Euskera*, 36, 1991, 1051-1079) proposatzen duenaren artean.

(5) Ez dirudi gaur egun eztabaidagarria izan daitekeenik izen berezi hauen grafian, jatorrizko *u* / *v* kontonantean *b* letraren bitartez ez jasotzekotan, *v* (maiuskula eta minuskula) bakarraren erabili beharra: ez dute behintzat inon ikusi honen aldeko iritzirik ez praktikarik, nahiz eta —lerro batzuk gorago esan legez— euskal tradizioan ere —gainerako denetan bezalaxe— maiz agertu.

*Zeremonie, zirka, Zirkel, Zitat.* Baina hala ere errespetatu egiten du izen berezi haue-  
tan eta —jakina— letrak dituen bi balioekin. Izan ere, *Cicero* eta *Cäsar* [tzitzero] eta  
[tzesar] ahoskatzen ditu, baina *Castor* eta *Cato*, aldiz, [kastor] eta [kato] (*c* letraren bi  
balioak Europa osoan baitira gure artean ere orain dela gutxi arte izan diren bezala-  
koak, latinean ere, oso antzinatik, horrela zelako). Esan bezala, eredutzat hartu  
ditudan bost hizkuntza hauek ez digute balio *qu* eta *v* letren kasuarekin honen  
antzeko zerbait egiteko, guztietan *qu* —zenbait hizkuntzatan oso gutxi bada ere—  
erabiltzen delako eta *v* / *b* oposaketa ematen delako: baina ez dira ezertan ere  
aldentzen *c* letraren kasutik —italieraren *b* letraren salbuespenarekin, esan bezala—.

5. Ez zaio begiratu ere egin behar izen berezi hauek euskal literaturaren historian  
izan duten bizitzari, mende honen hasieraraino inongo arazorik ez auzirik ez dagoela  
jakiteko —orokorki behintzat—. Leizarragak, Axularrek edo Etxeberri Sarakoak,  
gaur erabiltzen ditugun edizio batzuek —arrazoirik gabe, ene iritzian— bestela  
ematen badigute ere, *Cesar*, *Ciceron* eta *Virgilio* idazten zuten. Ez bakarrik haien  
ortografia *k*-rik gabea zelako: *v*-rik gabea ere bazen garai hartako edo piska bat  
beranduagoko idazletan baina hala ere *Virgilio* baino ez da irakurtzen hauetako  
askoren izkribuetan. Beharbada inguruko erdaren eraginagatik baina baita eta  
batez ere eragin hori nahi eta nahi ez gurea ere den latinaren  
grafiarekin zeharoan bat zetorrelako ere. Honela, bada, euskararen orto-  
grafiaren erreforma —edo erreformak— heldu arte: hau da, bart gauera arte. Baina  
lehenago ere ekarritako Mitxelena, Altuna eta Atxaga ortografian izan den erreforma  
iraultzaileena baino geroagokoak ditugu, eta hala ere *Cesar* eta *Virgilio* idatzi dute.<sup>6</sup>  
Onartu beharko da, beraz, auzia ez dagoela horrenbeste euskarak  
bere hitz arruntentzat duen ortografian, baina Antzinateko izen  
berezi hauek Mendebalean izan duten bizitzan eta tradizioan.  
Azkenik, ez lirudike alferrikakoa beste hau gehitzeak: honetan ere ez duela pisu

(6) Aitorru behar da, hala ere, aipatu idazleen jokaera ez dela beti berbera izan. Mitxelena zenaren euskal  
idatzietan —eta, jakina, mota bateko edo besteko transkripzioak aukeratzin ibili gabe— hauek aurkitu ditut  
azaleko begirada barean, hemen adibide adierazgarri gisa ematen ditudanak: Bruto, Cesar, Cassio, Marco Antonio  
(*MEIG*, I, 124-127 = *Egan*, 1954, 2-3, 36-38); Tartalo, Ulyse, Ithaka, Prometheu, Poseidon, Aias Oileu (*MEIG*, I,  
146 h. = *Egan*, 1955, 5-6, 61 h.); Homero, Ayas, Sofokles, Agamenon (*MEIG*, II, 67-71 = *Egan*, 1956, 3-4,  
102-105); Platon, Heraklito, Parmenides, Pitagoras, Empedokles, Sokrates (*MEIG*, III, 75-77 = *Egan*, 1962, 1-3,  
85 h.); Horazio (*MEIG*, III, 108 h. = *Egan*, 1963, 1-3, 144); Marte, Minerva (*MEIG*, V, 69 h. = *Egan*, 1965, 1-6,  
109-123); Virgilio (*MEIG*, VIII, 82 h. = *Egan*, 1967, 1-6, 108 h.); Zizeron, Zesar (*MEIG*, V, 101 hh. = P. Altuna,  
*Mendiburuaren idazlan argitaragabeak*, Bilbo 1982, lxxix-lxxxii); Herkules, Omphale, Vulkano, Floro (*MEIG*, V,  
71-93 = *ASJU*, 18, 1984, 217-239). Erraz ikusten da, bada, berrogeita hamar eta hirurogeietan honako honen  
antzeko zerbait zela bere jarrera, dauden eta suma daitezkeen salbuespenak salbu: a, fonetikari dagokionez, *-us* > *-o*,  
*-o* / *-onis* > *-on* eta abar; b, greziar izenak ez ditu latinaren bitartez transkribatzen; c, euskal hitz arruntetan gorde ez  
diren letra eta letra-multzoak gordetzearen alde agertzen da: *th*, *ss*, *h*, *y*, etab.; d, latinaren kasuan, eta logika beraren  
barnean, *v*, *c*, *b*, *ss* etab. onartzen dira (baina, noski, *Horazio*, etab.). Beranduago ordea, nahiz eta urte hauetan  
honelako izen gutxiago aurkitu dudana, badirudi *c* > *z* eta *c* > *k* aldaketak ametitzen dituela, baina *v* letra mantenduz  
eta, antza, jatorrizko grafia (Omphale) kasu ezezagunetan errespetatuz. Patxi Altunaren adibideak artikulu hone-  
tatik daude hartuak: P. Altuna, «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, 34 (1989),  
71-122, 86 h. eta 97 (gutxienez). Bernardo Atxagaren ustezko *bapax*-a liburu honetan irakurri dut: *Gizona bere  
bakardaduan*, Iruñea 1993, 144. (Lerro hauek idatzi eta gero kaleratu den Atxagaren *Lezio berri bat ostrukari buruz*  
—Bilbo 1994— izeneko liburuan izen hauek dakuskit: Plinio, Virgilio, Fidio Cornelio, Corbulon —hutsa da  
irakurtzen den Corbulon—, baina baita Seneka ere).

berbera Leizarraga, Axular, Etxeberri Sarakoa edo, oraingoen artean, Mitxelena, Al-tuna, Atxaga bezalako idazleen erabilerak eta irakaskuntzarako liburu berri batzue-tan —eginkizun honek izaten dituen baldintza eta presak tartean direla— han-hemenka ediren daitekeenak.

Azken hogeï edo berrogeï urte hauetako jokaerari buruz ere ohar bat gehitu beharra dago. Orixeren transkribapen sistema erabili ez dutenei errazago egin zaie nonbait *v* letra onartzea *c* eta *qu* baino: honela, guztiz hedatua dago —esango nuke urteotan zabalduen dagoena dela— *Virgilio* eta *Varron* idaztea baina, aldi berean, *Zesar* eta *Zizeron*. Hau kontraesan osoa da. Euskal hitz arruntentzako grafian onar-tzen diren letrak baino ezin badaitezke erabil Antzinateko izen bereziekin, *v* letra *c* eta *qu* bezain arrotza da: hortaz, badirudi edo denak edo bat ere ezin dela honetarako onartu. Eta, ahoskeraren aldetik ikusita, hirurak daude egoera berean: batek ere ezin du, euskal irakurlearengan, onargarri ez den ahoskerarik sortu; are gehiago: *qu*-k bada ere ameti dezake jatorritik hurrago eta oraingo hizkuntza askotan zilegi eta bakarra den ahoskera, *Kintiliano* bezalako transkribaketek, esaterako, hurbilen ditu-gun erdarekiko morrontza erakusten duten bitartean, *paradoxa* dirudien arren. Azkenik, *g*-ren kasua, apur bat bestelakoa izanda, adierazgarria eta, nolabait, eredu-garria da: eurrez erabili da —*v* letra bezainbat edo gehiago— oraingo ahoskera arruntinari kasurik egiteke (aipatutakoen artean gutxitan idatzi da *Virgilio* edo *Jer-maniko* bezalakorik), euskal grafian ere erabiltzen delako, baina baita latinaren jato-rrizko grafiarekin bat datorrelako eta ohikoa den baino jatorrago litzatekeen ahoskera ameti dezakeelako (ikus, guzti honen argigarri, *geologia* idazteak salatzen duena, horretarako arrazoi bakarra *jeologia* idazteak begietan min emango ligukeela baino ez baita).

6. Grekoaren izen berezien kontua desberdina da. Greziako kultura latinaren bitartekotasunaz heldu da Mendebalera: K. o. V. edo VI. mendetik aurrera eta XV. mendera arte grekoa ez da jakin, esateko moduan, Europako Mendebalean, eta XV. mendetik aurrera idatzi eta irakurtzen zuen *élite*-aren *élite* itxi eta murrizt batentzat izan da ezaguna eta horrentzat ere, oro har behintzat, oso maila aldakor batean. Honela, eta izen berezien arlora itzultzeko, ingelesak, alemanak —joan den mendea-ren erdi aldetik hona salbuespen gutxi batzuekin—, frantsesak, gaztelarak eta italie-rak greziar izen bereziak latinaren grafiarekin eman dituzte: eta latinean grafiaren moldaketa —kasurik korapilatsuenak baino ez aipatzearren— honela izan zen:  $\kappa > c$ ,  $\chi > ch$ , eta  $\alpha > ae$  ( $> e$ ). Izan ere *Sophocles*, *Sophokles* orain baina lehen *Sophocles*, *Sophocle*, *Sófocles* eta *Sofocle* da izena aipatu hizkuntzetan —lehenagoko ordenan—, eta (honekin greziar grafiaren zailtasun latzenak jasotzeko) *Aeschylus*, *Aischylos* orain —eta ez beti— baina *Aeschylos* edo *Äschylos* lehen, *Eschyle*, *Esquilo* edo *Ésquilo*, eta *Eschilo* (baina italieraren *ch* hau ez da  $\chi$  gordetzeko, [k] ahoskatzeko baizik: ikus, bestela, *Callimaco* < Καλλιμάχος). Ikus bedi grekoaren  $\kappa$  ordezkatzeko duen *k* hori, hogeigarren mende honetako alemanean izan ezik, ez dela inongo hizkuntzatan erabiltzen —ezta bere berea duen ingelesean ere—;  $\alpha$  beti —hogeigarren mendeko alemanaren salbuespenarekin berriz, eta ez beti— latinak horrentzat zeukan *ae* (hor-tik batzuetan *e*) diptongoaren bitartez jaso dela; eta  $\chi$  ez dela, ezta oraingo

alemanean ere, *kb* transkribatzen, latinaren *cb* (hortik batzuetan *c*) baizik —beste gauza bat baita, zeharo desberdina, transliterazioa—. Euskarak ez du ahaidetasunik —kontrakoa frogatzen ez den bitartean— bizirik diharduen inongo hizkuntzarekin, baina kokapen geografikorik —eta kulturalik— badu. Teodosio Handia Erromako enperadorea hil zenean (K. o. 395) lehendik zehaztuta zeuden erromatar Inperioaren *pars Occidentis* eta *pars Orientis* zeharo eta betiko banandu ziren: bien arteko muga, Europari dagokionez, gutxi gora behera gaurko Albania eta Montenegro artean dagoen Drin ibaitik gora zihoan, Danubio eta Rhin-etik honantz zegoena hartzen zuela. Orain, mila eta bostehun urte beranduago, marra haren hemengo eta hango aldeko herriak —marra, han hemenka, kilometro batzuk honantz mugitu bada ere—, besteak beste, alfabeto desberdinak dituztelako bereizten dira —nahiz eta batzuetan hizkuntza bera edo ia bera izan marraren bi aldeetan mintzatzen dena—. Beraz, eta besterik egiteko arrazoi berezirik ez dugun bitartean behintzat, euskaran ere naturala da, auzokideen artean den bezala, Antzinateko greziarren izen berezi guztiak latinetik hartzea, hain zuzen Euskal Herria ere lehenago esan dugun marra haren honuntzagokoa delako.

7. Latinari buruzkoa onartzen bada badirudi legezkoa dela hau ere ontzat ematea, alegia, greziar izen bereziak —eta berriz ere diot Antzinatekoei buruz bakarrik ari naizela— latinaren bitartekotasunaz eman beharko liratekeela: beraz, *Sophocles*, *Calimacho*, *Theocrito*, *Rhadamanto* eta *Lysias*. Hortik aurrera eztabaida daiteke ia latinetik —edo latinaren aldamenetik— euskarak hartu dituen bestelako hitzekin egin diren aldaketak hemen ere egitea egokiago den edo ez den: batez ere *ch* > *c*, *ph* > *f*, *th* > *t*, *rh* > *r* eta *y* > *i*. Egingo balira, beraz, honelako grafiak sortuko litzaizkiguke: *Sofocles*, *Calimaco*, *Teocrito*, *Radamanto* eta *Lisias*. Baina hau, nire ustez, bigarren mailako auzia da eta norberaren borondatearen mende gera daitekeena.

Azkenik aipatutako irtenbidetik abiatzeak (*ch* > *c*, *ph* > *f*, *th* > *t*, *rh* > *r*, *y* > *i*) arazo bat —eta, oker ez banago, bakar hau— lekarke: zer egin *Aeschyllos* izenean, esaterako, dagoen *chy* letra multzoarekin? Lege horien arabera, *y* grekoa *i* bihurtuko litzateke, *cb* bere aldetik *c*, eta orduan *Escilo* ezinezkoa gertatuko litzateke —ezinezkoa, jakina, ahoskera okerra eragingo lukeelako—. Badirudi kasu hauetan, hau da, *che* eta *chi* silabak gertatzen direnean, latinaren grafia gordetzea litzatekeela irtenbide naturalena. Beraz, *Calimaco* baina *Eschilo* eta *Chersoneso*: beste hitzetan adierazita, grekozko  $\chi$  latinean *che*, *chi* edo *chy* bihurtzen denean bakarrik gordeko litzateke. Honi esker —alde batetik— esandako transkripzio sistema osoa inongo hutsik gabe mantentzeko daitekeelako; beste alde batetik, *cb* letrek ezin dutelako, gorago esanda dagoen bezala, irakurle euskaldunarengan inongo ahoskera okerrik eragin, konbinaketa horrek ez duelako berezko baliorik; hirugarrenez, eta beti ere idazkera ahoskerari menderatuz, honen erabilera ematen duen baino errazagoa delako: nahikoa da gure inguruko hizkuntza guztietan, eta beti ere Antzinateko greziar izen bereziei buruz ari garelarik, [ke] eta [ki] ahoskatzen diren silabak euskaraz *che* eta *chi* transkribatzea (greziar izenak diot, latindarrekin *que* eta *qui* batetik etor daitezkeelako). Baina hau guztia —argi gera dadila— *ch* > *c*, *ph* > *f*, *th* > *t*, *rh* > *r*, *y* > *i*



transkribapena onartzen bada bakarrik: ez gorago adierazitako bestean geratzen bagara.

\* \* \*

Honako hau da, hortaz, orain arteko lerro hauetan Antzinateko greziar eta erromatar izen berezien grafia ri dagokionez defendatu nahi izan dudana:

1. Latin bitartekotzako izen guztiak —salbuespenak albuespen— lege berberen arabera transkribatuko dira.
2. Oro har, latin bitartekotzako izenek —baita, beraz, greziarrek— latinean izan duten grafia gordeko dute euskarari, ahoskerak kontrakorik derrigortzen ez duen bitartean. Hau da, *c*, *qu* eta *v* edozein testu ingurutan mantenduko dira. Adibidez: *Caton*, *Cesar*, *Ciceron*, *Cornelio*, *Curculio*; *Quadrigario*, *Quercete*, *Quintiliano*; *Varron*, *Veies*, *Virgilio*, *Volpisco*, *Vulcano*.
3. Euskal ahoskera jatorrizko grafiarekin bat ez badator, lehenengoak agintzen du: -tius, -tia, -tium > -(t)zio, -(t)zia, -(t)zio; ae > e; oe > e (beraz: *Horazio* < *Horatius*, *Prudentzia* < *Prudentia*, *Lazio* < *Latium*, *Cesar* < *Caesar*, *Phebo* edo *Febo* < *Phoebus*).
4. Greziar izenek latinean gorde dituzten berezitasun grafikoekin (ch < χ, ph < φ, th < θ, rh < ρ, y < υ) bi jokaera desberdinek dirudite onargarri: a, latinaren grafia errespetatzea (beraz: *Calimacho*, *Sophocles*, *Athenea*, *Rhadamanto*, *Pyrrho*) eta hobetsi beharko litzatekeena; b, hainbat hizkuntzatan eta, hitz arrunten kasuan, euskarari ere erabili den irizpidea kontuan izan eta aurrerapausu bat gehiago eman greziar izen horien bere latinezko moldaketan: ch > c, ph > f, th > t, rh > r, y > i (beraz: *Calimaco*, *Sofocles*, *Atenea*, *Radamanto*, *Pirro*). Bigarren jokaera hau onartzekotan, latinezko *che*, *chi* eta *chy*, *che* eta *chi* formarekin mantendu behar dira aipatu arrazoietatik.
5. Bestelako kontsonante multzoentzat, nahiz grekotik etorri nahiz latinetik, laugarren puntuan azaldutakoak du indar: *Cassio* edo *Casio*, *Attico* edo *Arico*, *Assaraco* edo *Asaraco*; *Scipion* edo *Escipion*, etab. (baina *Xenophonte* edo *Xenofonte*, *Zeus*, *Zama*, *Zeuxis*, etab.).
6. *Litterae Ramenses* direlakoekin badirudi arrazoizkoena horiek mantentzea dela: hau da, latinezko <i> eta <u>, bokale direnean *i* eta *u*, kontsonante direnean *j* eta *v* idatzi: *Julio*, *Jugurtha*, *Troja*, *Ajax*, *Trajano*, etab. —ahoskerarena, beti bezala, beste kontu bat da—, eta *Virgilio*, *Verres*, *Varron* etab.